



2011KO URRIAREN 27KO
EZ-OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaikako urriaren hogeita zazpian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, ez-ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Iztueta, Andoitz Garmendia Zubeldia, Maialen Aldasoro Aranburu, Maria Aranzazu Bengoa Gorosabel, Urtzi Iruin Arruti, Patxi Albisu Estensoro, Felix Urkola Iriarte, Ane Irastortza Izagirre, Milagros Madrazo Rada eta Juan Manuel Serna Portugal.

Inazio Estensoro Eskisabel zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- 2011KO AZAROAREN 20KO HAUTESKUNDE MAHAJETARAKO MAHAIKIDEAK AUKERATZEKO ZOZKETA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, Eguneko Gai Zerrendako puntu bakarrari ekiten zaio, 2011ko azaroaren 20an egingo diren Espainiako Kongresua eta Senaturako Hauteskunde Nagusiak direla eta Hauteskunde Mahaietako partaideak aukeratzeko zozketari hain zuzen ere, Hauteskundeetako Erregimen Orokorreko Lege Organikoaren 26.4 artikulua xedatutakoaren arabera.

Zozketa horretarako prestatutako informatika programa baten bidez egiten da, datuak Lazkaoko hautesle zentsutik hartzen dira, Instituto Nacional de Estadística erakundeak bidalitako CONOCE programatik hain zuzen.

Zozketaren ondoren Lazkaoko Udalerrian eratuko diren 6 mahaietarako presidente eta bokalak aukeratzeko, titular nahiz ordezkioak, hauen datuak horretarako prestatutako orrietan jasotzen direlarik bere espedientean.

II.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta laurden direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

